

e[▲]strategia

Euskal kultur erakundearen estrategia numerikoa 2018 - 2020

BIDE-ORRI?

2017ko urria



AURKIBIDEA

IKUSMOLDEA	3
KULTURA BITARTEKARITZA & ESTRATEGIA NUMERIKOA	4
ESTRATEGIA OROKORRA & ESTRATEGIA NUMERIKOA	5
DIAGNOSTIKOA	6
EKE & BITARTEKARITZA NUMERIKOA : EGOERAREN IKUSPEGIA	7
DIAGNOSTIKO-OINARRIEN SINTESIA EKINTZARAKO	8
PROPOSAMEN ESTRATEGIKOA ETA DEKLINABIDEAK	9
BITARTEKARITZA NUMERIKOA ADAR ESTRATEGIKO BATZUREN ZERBITZUKO	10
ESTRATEGIA NUMERIKOA & ERABILTZAILEAK	12
BITARTEKARITZA NUMERIKORAKO LAU ARDATZAK	13
ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA XEDEKO PUBLIKOAK	14
ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA HELBURU OROKORRAK	15
EKINTZA NAGUSIAK ETA ZEHARKAKO PRINTZIPIOAK	16
DEKLINABIDE NAGUSIEN SAILKAPENA AKTUALITATEARI ETA EDUKI LANKETA MAILARI BEGIRA	17
EKINTZA NAGUSIEN EGUTEGIA - AURREIKUSPENAK	26

e**strategia**

Euskal kultur erakundearen estrategia numerikoa 2018 - 2020

IKUSMOLDEA

KULTURA BITARTEKARITZA & ESTRATEGIA NUMERIKOA

Orohar, arte eta ondare mota guztien jabetze kolektiboa du helburu kultura bitartekaritzak, eduki eta publiko desberdinen arteko zubi lana bermatuz.


Euskarriren desmaterializazioaren nahiz interneten bidezko norbanakoen eta makinaren arteko loturen ikuspegitik aztertu-rik **numerikoak** arartekolari lan hori sakonki aldatu du azken urtoetan.

2000ko hamarkadaren hasieraz geroztik, Euskal kultur erakundeak euskal kulturaren **bitartekaritza numerikoa** garatzen du tresna numerikoak eskainiz (webguneak, newsletter-ak, sare sozialak, erakusketa multimedialak...), eta artetan horien erabilerako laguntza proposatuz (erakusketa ibiltarien inguruko bisita gidatuak, EKE-ko egoitzara dokumentu digitalizatuen ikustera heldu direnei harrera...). Alde batetik informazio edo baliabide numerikoetara sarbidea errazten dute eta bestetik kultura eragileen eta publikoen arteko elkarriketak eta trukaketak ahalbidetzen.

Estrategia numerikoa Euskal kultur erakundeko kultura bitartekaritzarako dispositiboen sortze, ebaluatze eta hobetze prozesua gidatzen duen koadroa da.

Koadro horrek EKE-ko norabide orokorren dinamikan kokatu behar du eta aldi berean elkarteak zerbitzatu nahi dituen erabiltzaileen beharrak konduan hartu behar ditu.

Bide-orri honek estrategia numeriko honen ildo nagusiak laburbiltzen ditu 2020ko epemugan.



* UNESCOren Mexikoko adierazpenaren arabera hitzak duen erran-nahi zabalarekin. Kultura politikei buruzko mundu konferentzia, Mexico City, 1982.

ESTRATEGIA OROKORRA & ESTRATEGIA NUMERIKOA

Estrategia numerikoak EKE-k estrategia orokorraren zerbitzuko egon beharko luke. Estrategia horren deklinabide bat da. Zentzu horretan, gainerateko estrategia sektorialen osagarri da.

Adibidez, elkarteen laguntzea, hein handi batean, EKE-ko teknikariek burutu jarraipen pertsonalizatu batean oinarritzen ahal da. Ez du kentzen, aldi berean, EKE-k eskainitako komunikazio numerikoak ere lauzka dezakeela ekitaldi edo ekimen baten komunikazioa.

Kultura eragileen laguntzeko estrategiak eta estrategia numerikoak elkar osatzen dute.






Euskal kultur erakundearen estrategia numerikoa 2018 - 2020

DIAGNOSTIKOA

EKE & BITARTEKARITZA NUMERIKOA : EGOERAREN IKUSPEGIA



Zonbeit datu (2017ko ekaina)

INTERNET

EKE.EUS

» 227.000 erabiltzaile inguru 2016an.
 » Webgunea bisitatzen duten internauten 3/4-ak Euskal Herritik datoz (%20 Iparraldetik, %21 Euskaditik eta Nafarroatik) eta Frantziatik (%35).
 2013. urteaz geroz Hego Euskal Herriko bisitarien kopurua Iparraldekoarena baino bi aldiz fiteago emendatu da. ⁽¹⁾

SARE SOZIALAK

Facebook

- » 4400 zale (haietatik 2000 Frantzia eta proportzio berean Espainian).
- » 25 eta 45 urte artekoa da zaleen %50a baino gehiago.

Twitter

» 2100 zale euskarazko konduan (@eke_eus) eta 900 baino gehiago frantsesezko konduan (@icb_info).

» Bi kasuetan 25 eta 45 urte artekoa da zaleen %70a baino gehiago.

E-POSTA KANPAINAK

- » 2200 harpidedun asteroko newsletter-ari (agenda).
- » 800 harpidedun hilabeteroko newsletterari (kultura eragileei zuzendua).

"SOKA - EUSKAL DANTZA" MUGIKORRETAKO APLIKAZIOA
» 500 eta 1000 arteko ezarpen.

ERAKUSKETA IBILTARIAK

SOKA

» Biarritzen estreinatuta zenetik 2015eko irailean, 12000 bisitarik ikusi dute erakusketa (aurreikuspenen arabera 20000 izan daitezke 2018ko urte hondarreko). SOKA erakusketaren bertsio sintetikoa aurkeztu da ere Idahoan Boiseko Euskal museoan (Ameriketako Estatu Batuk).

(1) www.eke.eus webguneko estatistikak - 2013-2016 - Goodness enpresak EKE-rentzat egin azterketaren arabera datuak - 2017ko apirila

DIAGNOSTIKO-OINARRIEN SINTESIA EKINTZARAKO

1

Testuingurua

Kondutan hartzekoak diren egoera eta bilakaerak

- » Euskal kulturaren diagnostikoa eta politika publikoetarako norabide proposamenak - EKE-k egin lana - 2017ko maiatza.
- » Euskararen egoera soziolinguistikoa.
- » Ipar Euskal Herriaren eboluzio demografikoa
- » "Euskal kultura eta euskara" eskumena daukan Euskal Hirigune elkarkoaren sortzea.
- » Transizio numerikoaren paradigma eta honek eragiten dituen gizarte mailako bilakaerak eta aldaketak (mugikortasuna, Big data eta marketing digitala, arretaren ekonomia, gomendioaren gizartea).
- » Kultura eskubideen kontzeptua.

2

Kondutan hartzekoak diren elementu estrategikoak

Ekintza numerikorako oinarriak

- » Euskal kultur erakundea "Euskal etnopol" gisa (etnologiaren alorrean ikerketa eta baliabide zentroa) izendatu du Frantziako kultura ministeritzak, 4 urte daramatza.
- » Akitania Berriko DRAC-ak, errektoretzak eta Bordeleko ESPE erakundeak eskolako bultzatutako P@trinum programaren baitan, bitartekaritza numerikorako polo gisa kontsideratua da Euskal kultur erakundea.
- » EKE-ko finantzamendua segurtatua da Estatuak eta Eskualdeak 2015-2020 epealdientzat izenpetu duten hitzarmenaren kariatara.

3

Dispositibo numerikoen erabileren inguruko datuak

Geroz eta banatuagoak diren publikoen iritziak

INTERNET DISPOSITIBOAK

- » Gure eke.eus webgunearen arrakasta (220.000 bisitari baino gehiago 2016an) proposatu edukien aniztasunean datza. Orri ikusien %55ak webguneko atal tematikoekin badu zerikusirik (musika, dantza ea.) eta %35ak kultura aktualitatearekin (agenda ea.)⁽¹⁾.
- » Hego Euskal Herriko datuen bisitarien %35ak euskaraz diren orriak kontsultatzen ditu, Iparraldeko datuenen %13ak hala egiten duelarik.
- » Webgunea askotan erabiltzen duten bisitarien %85a pozik edo biziki pozik egoten da eskainia zaion zerbitzuarekin. EKE-ko webgunea bezala identifikatzen dute orohar. Tresna hobetzekotan grafismoan eta ergonomian emanen lukete indarra (maiz sobera nahasia atxematen dute). Erabiltzaile horientzat garrantzitsua da ere geroan dokumentuzko datu-baseetara sarbidea eskaintzea baita ere ondareari lotu gaiak, edota arlo artistikoari buruzkoak jorratuak izan daitezkeen artikulu sakon batzuen bitartez, euskal kulturaren agendan oinarrituz betiere⁽²⁾.
- » EKE-ko newsletterei harpidetuak diren erabiltzaileen %98ek gustukoak dituzte (irekitze-tasa %30ekoa da asterokoarentzat eta %45ekoa profesionalarentzat). Hobetzeko arloan: grafismoa, edukien aberastea eta interesguneen araberako pertsonalizazioa.

- » EKE-k bere webgunean kultur eragileentzat eskura jartzen dituen informazioak eta baliabideak nahiko ezezagunak gertatzen zaizkie. Guttitan erabiltzen dituzte gainera⁽³⁾. Hala ere, artistek eta elkarteek nahi dute EKE-k segi dezan beren informazioak helarazten kanala numerikoen bidez. Haietatik batzuek nahi lukete ere zabaltzen diren egitasmo deialdietaz eta agertzen diren proposamen artistiko berrietaz jakinean atxikiak izan.
- » Kultura eragileen arteko komunikazioa lagunduko luketen dispositibo numerikoen ekoiztea aipatzen da ere artetan.

- » EKE-ren presentzia nabaria da Facebook eta Twitter sareetan. Halere badirudi bertan sortu diren komunitateen animazioa berriz beste molde batez ikusteko dela elkarrekin gehiago lortzeko. Honek erran nahi du ere "Ekosistema" autonomo gisa kontsideratu beharko liratekeela baliabide bereziak dedikatuz kudeaketaren ikuspuntutik.

DISPOSITIBO NUMERIKO IBILTARIAK

- » "SOKA, euskal dantzaren urratsetan" erakusketak gaian adituak nahiz neofitoak erakartzen ditu. Erakusketen ikustera joateko ohiturarik ez duen publikoa hunkitzen du ere: Maulen, adibidez, bisitarien %50a multzo horretan sartzen zen. Asebetetze mailaren notak 8 gainditzen du 10-ren gainean. Askotan bisitariak adierazi dute erakusketaren edukiak sarean ikusteko gogoa⁽⁴⁾.

4

Diagnostiko teknikoak

Dispositibo kanbiakorrak

- » EKE-ko eke.eus ataria eta Mintzoak.eus plataforma arras emaitza oneko eduki kudeaketarako sistematan oinarrituak dira (Plone, Django). Egokitzeko errazak dira, bilakaerarako prestatuak eta eleaniztasunaren erronkei erantzuteko gai.
- » EKE-ko barne informazio sistema hobetzeko da aldi (zerbitzaria, aplikazioak eta salbatze prozesua), batez ere EKE-n zainduak diren ikus-entzunezko artxiboak kontsultarako prest uzteko gisan.
- » Erakusketak ibiltaria eta erabiltzen diren ukipen-pantaila dispositiboak fidagarriak dira eta azkarak. Informatika tresneria, hein handi batean, (ordenagailuak eta egiturak) berrerrabil daitezke egitasmo berri batzuetan.

5

Eskura diren baliabideak

Optimizatzekoak eta sendotzekoak diren baliabideak

- » Tresna numerikoen sortzeak, animazioak eta kudeaketak 2 lanpostu^{1/4} (langileak eta ikasleak barne) eskatu ditu orain arte.
- » Lan zamaren kudeaketa zailagoa izaten da bitartekaritza dispositiboaren sortze fasean (adibidez erakusketak baten ekoizpen fasean), non ere giza baliabideak unean uneko lehentasunen zerbitzuko ematen diren eguneroko dispositiboaren eguneraketaren eta kudeaketaren kaltetan (eke.eus webgunea dela kasu).
- » Barne-antolaketa eta formakuntza planoa (multimedia, gai juridikoak, bideo & sare sozialak) beharrezkoak dira bitartekaritza numerikoaren aldeko indarren neurtzeko eta bideratzeko.

(1) eke.eus - 2013-2016 - Goodness enpresak EKE-rentzat atera datu-azterketaren emaitzen arabera - 2017ko apirila

(2) EKE-ko newsletteren harpidetuen eta webgunearen bisitarien zuzendutako inkestaren emaitzen arabera - 2016ko azaroa

(3) Euskal kultur erakundeak bere elkarre-kideei eta Iparraldeko kultura eragile zuzendutako inkestaren emaitzen arabera - 2017ko ekaina


(4) "SOKA, euskal dantzaren urratsetan" erakusketaren publikoaren azterketa - Maule - 2017ko maiatza



Euskal kultur erakundearen estrategia numerikoa 2018 - 2020

PROPOSAMEN ESTRATEGIKOA ETA DEKLINABIDEAK

BITARTEKARITZA NUMERIKOA ADAR ESTRATEGIKO BATZUREN ZERBITZUKO



NORABIDE ESTRATEGIKOAK

BILDUMA EGINEZ:


ESTRATEGIA NUMERIKOA

HIRU LAN-ALORREN ZERBITZUKO ZEHARKAKO PRINTZPIOEKIN BAT EGINIK



ESTRATEGIA NUMERIKOA & ERABILTZAILEAK


KONDUTAN HARTZEKOAK DIREN ERABILTZAILE SOSLAIAK



Dokumentu honetan oinarritua: *Publikoen garapenari buruzko ikerketa – Nola ezar publikoak kultura antolakundearen erdigunean*, Alessandro Bollo, Cristina Da Milano, Alessandra Gariboldi, Chris Torch, Europako batzordea, 2017ko urtarila

BITARTEKARITZA NUMERIKORAKO LAU ARDATZAK

Norabide estrategikoak



ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA XEDEKO PUBLIKOAK

1. ardatza: Euskal kulturari buruzko ikerketak eta gogoetak hedatu




2. ardatza: Ondare datubaseetarako sarbideak erraztu




3. ardatza: Eduki numeriko editorializatuak ekoiztu eta partekatu



4. ardatza: Aktualitate artistikoa eta kulturala bildu eta agerian eman




ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA HELBURU OROKORRAK



EKINTZA NAGUSIAK ETA ZEHARKAKO PRINTZPIOAK



DEKLINABIDE NAGUSIEN SAILKAPENA AKTUALITATEARI ETA EDUKI LANKETA MAILARI BEGIRA



1. ARDATZA: EUSKAL KULTURARI BURUZKO IKERKETAK ETA GOGOETAK HEDATU

HELBURU OROKORRAK:

- > «EUSKAL ETNOPOLOA» LABELAREN BAITAN ERAMAN IKERKETAK ETA GOGOETAK ESKURAGARRI EMAN
- > «EUSKAL ETNOPOLOA» LABELAREN EZAGUPENA ETA IKUSPENA HOBETU ETA INDARTU

Ekintza nagusiak	Deskribapen laburra	Eramailea	Epeak	Xedeko soslaiak	Ebaluaketa (indikadoreak)
① «Euskal etnopoloa» labelaren baitan antolatu mintegien eta jardunaldien bilduma medianiztunak	- Atal baten irekitzea eke.eus webgunean (lau hizkuntzatan) - Mintegien eta solasaldien bideo/soinu kaptazioak - Zuzeneko emankizunak (streaming)	EKE	- Webguneko atala: 2018an prest - Eguneraketak: 2018-2020	- Jakintsua - Eragilea	- Erreferentziamendu naturala - Bisita kopurua / orriak - Bideoen ikuskatze kopurua - Telekargatzeen kopurua - Inkestak eta elkarrizketa kualitatiboak
② Etnopoloren baitan eraman ikerketen eta gogoeten zabalpena	Atal baten irekitzea eke.eus webgunean (lau hizkuntzatan)	EKE	- Webguneko atala: 2018an prest - Eguneraketak: 2018-2020	- Jakintsua - Eragilea	- Erreferentziamendu naturala - Bisita kopurua / orriak - Telekargatzeen kopurua - Inkestak eta elkarrizketa kualitatiboak
③ «Euskal etnopoloren» aktualitatearen hedapen numerikoa	- Aktualitate hari berezi baten sortzea (euskaraz eta frantsesez) eke.eus webgunean - Berrien hedapena EKE-ko newsletter-etan eta sare sozialetan - Berrien hedapena Etnopoloko partaideen tresna numerikoetan	EKE eta Etnopoloa labelako partaideak	- Aktualitate haria 2017. urte hondarreko prest - Eguneraketak: 2018-2020 - Hedapena partaideen webguneetan: 2018tik goiti	- Jakintsua - Eragilea	- Erreferentziamendu naturala - Bisita kopurua / orriak - Partaideen webguneetan egin diren estekak - Media/prentsa aipamenak

2. ARDATZA: ONDARE DATUBASEETARAKO SARBIDEAK ERRAZTU

HELBURU OROKORRAK:

> EUSKAL KULTURARI BURUZKO DOKUMENTU-DATUBASEETARAKO SARBIDEA ERRAZTU

> DOKUMENTU-BALIABIDEEN ERABILPENA BULTZATU

Ekintza nagusiak	Deskribapen laburra	Eramailea	Epeak	Xedeko soslaia	Ebaluaketa (indikadoreak)
① Mintzoak.eus, ahozko memoriaren atariaren garapena	- Lekukotasun berri batzuren integrazioa (bi hizkuntzatan) herriko etxe, erakunde eta elkarte desberdinekin partaidetzan - Gai tematikoak eta bildumen balorapen pedagogikoa lantzen dituzten atalen garapena - Socialmedia eta transmedia estrategiak uztartzen dituen komunikazio plan baten segipena	EKE Partaideak: departalendua, herriak, ahotsak.eus...	- Erabiltzaile talde baten osaketa (focus group) - Ahotsak.eus, Itsasu eta Donibane Lohizuneko lekukotasunen sareratzea: 2018 - Eleketa - e-archives (departamendua) datu-baseetako datuen uztza: 2018 - Komunikazio plana: 2018-2020 - API baten garapena atariko datuen partikatzeko: 2019 - Atal tematikoen garapena: 2019tik goiti - Eguneraketak: 2018-2020	- Jakintsua - Eragilea - Kontsumitzailea	- Lekukotasun integrazio kopurua - Bisitak / Orri ikusiak - Bideoen ikuskatze kopurua - Inkestak eta elkarriketa kualitatiboak - Parte hartzea (sare sozialak)
② «SOKA, euskal dantzaren urratsetan» erakusketako eduki-katalogoaren sareratzea	- SOKA erakusketako erreferentzia bibliografikoen eta ikus-entzunezko / ikonografia ilustrazioen dokumentuzko tratamendua EAD formatuan - Bilaketa tresnaren sareratzea soka.eus webgunean	EKE Aholkularia: IDB	- Katalogoaren sortzea EAD formatuan: 2018 - Sareratzea: 2019	- Jakintsua - Eragilea	- Bisitak / Orri ikusiak - Katalogoaren fama - Inkestak eta elkarriketa kualitatiboak

Ekintza nagusiak	Deskribapen laburra	Eramailea	Epeak	Xedeko soslaiak	Ebaluaketa (indikadoreak)
③ Ondare immaterialaren eta ahozkoaren inguruko ikus-entzunezko dokumentuen kontsultatzeko gune kolaboratibo eta ireki baten antolaketa EKE-n	▪ Ondare immaterialari eta ahozkotasanari buruz EKE-n gordeak diren dokumentu numerizatuen ikusteko/entzuteko xoko baten antolaketa (toki irekia, artistendako nahiz publiko orokorrarendako) ▪ EKE-n kontsultagarri diren edukien katalogo baten osaketa	EKE	▪ 2018-2020: kontsultagune baten antolaketa ▪ 2019: EKE-n kontsultagarri diren edukien katalogo baten osaketa	▪ Jakintsua ▪ Eragilea	▪ Ikusgarri diren erreferentzien kopurua ▪ Dokumentuen ikustera heldu diren pertsonen kopurua/ ezaugarriak
④ Artxibo bilduma berezi batzuren numerizazioa	▪ Jean Guyot argazkilariaren argazki-bildumaren katalogatzea eta numerizazioa (6000 argazki)	EKE	▪ Numerizazioa: 2018 ▪ Tratamendua: 2019	▪ Jakintsua ▪ Eragilea	▪ Numerizazioaren kalitatea ▪ Interesa kultura/arte tematikei begira
⑤ Artxibo bilduma berezi batzuren balorapena	▪ Erakusketa birtual baten sortzea (mintzoak.eus) 1914-1918ko gerlako euskal preso batzuren soinu grabaketetan oinarriturik ▪ Maite Barnetche-ren telebistako emankizun batzuren balorapena erakusketa birtual baten bidez	EKE Partaideak: Berlingo Etnologia Museoa eta Humboldt unibertsitatea INA erakundea	▪ 2018-2019: azterketa eta ikerketa fasea ▪ 2019: Gerla handiko euskal presoen grabaketekin osatu erakusketa birtuala ▪ 2020: Maite Barnetche-ren emankizunekin osatu erakusketa birtuala (1971tik goiti eginiko emankizunez osaturik)	▪ Jakintsua ▪ Eragilea ▪ Kontsumitzailea	▪ Bisitak / Orri ikusiak ▪ Erakusketa birtualen fama
⑥ Euskal kulturari buruzko dokumentuzko atari baten sortzeko gogoeta kolektiboan parte hartzea	▪ Etnopoloaren baitan, partaidez osatu lantalde baten animazioa	EKE eta Euskal etnopoloa labelako partaideak	▪ 2018-2020	▪ Jakintsua ▪ Eragilea ▪ Kontsumitzailea	▪ Gogoetaren aitzinamenduraren maila

3. ARDATZA: EDUKI NUMERIKO EDITORIALIZATUAK EKOIZTU ETA PARTEKATU

HELBURU OROKORRAK:

- > PUBLIKO DESBERDINEI EGOKITU EUSKAL KULTURARI BURUZKO DIBULGAZIO EUSKARRI NUMERIKOAK ESKAINI
- > ARTE ETA KULTURA HEZIKETARAKO ERAKASLEEI ETA ANIMATZAILEEI BALIAGARRIAK IZANEN ZAIZKIEN MODULU NUMERIKO BATZUREN SORTZEAN PARTE HARTU

Ekintza nagusiak	Deskribapen laburra	Eramailea	Epeak	Xedeko soslaiak	Ebaluaketa (indikadoreak)
① eke.eus webgunearen berrantolaketa	- Erabiltzailearen ohituren konduetan hartzea (UX, user experience design). Horretarako atariko erabiltzaileak ordezkatzeko dituen lantalde baten osaketa, publikoen soslai desberdinetan oinarriturik - Webgunearen berritze grafikoa eta funtzionala (gaien berrantolaketa, nabigazioaren sinplifikazioa, mugikorretako bertsioaren hobetzea)	EKE	2018	- Jakintsua - Eragilea - Kontsumitzailea - Neofitoa - Ihardukitzailea	- Erabiltzaile lantaldearen oharrak - Estatistika teknikoak (adibidez orrien kargatze-denbora mugikorretan)
② Hurbilpen kritikoak, dokumentuzko baliabideak eta aktualitatea gurutzarazten dituzten txosten medianiztunen sortzea, gai artistikoak eta kultura gaiak oinarritzat hartuz	Gai kulturalak eta artistikoak jorratzen dituzten txostenen lantzea (editorializazioa) dokumentuzko bildumak (datubaseak), ikus-entzunezko euskarriak (bideoak, irudiak) eta pertsona desberdinen ekarpenak baliatuz. Betiere Euskal etnopoloren gogoetekin bat eginik, hurbilpen artistikoak eta zientifikoak gurutzatuz	EKE Euskal etnopoloren partaideak: Bilketa, Baionako Euskal Museoa...	2018an txosten esperimental baten irekitzea, artistak, elkarteak eta erabiltzaileak bilduko dituen batzorde baten gogoetak konduetan harturik - Hiru txosten sortuko litezke 2019-2020 epealdian	- Kontsumitzailea - Neofitoa - Ihardukitzailea	- Batzordearen oharrak - Erreferentziatutako naturala - Bisitak / Orri ikusiak - Aipamenak / Estekak

Ekintza nagusiak	Deskribapen laburra	Eramailea	Epeak	Xedeko soslaiak	Ebaluaketa (indikadoreak)
③ Txosten pedagogiko batzuren sortzea partzuergoan	Baliabide numerikoen ustiapen pedagogikoa (elebiduna). Adibidez SOKA erakusketaren dokumentuzko tratamendua edota www.mintzoak.eus atariko baliabideen balorapena. Publikoa: ikastetxeetako haurrak eta gazteak	EKE Partaideak: Ikas, Canopé	2019-2020	Neofitoa	Erakasleen eta animatzaileen ihardokitzeak
④ Etnopoloak ikertutako gai baten inguruko erakusketa multimedia eta ibiltariaren ko-ekoizpena	Erakusketa ibiltari eta egokigarri baten sortzea, gailu multimedia erabiliz eta transmedian oinarrituz	EKE eta Euskal etnopoloko partaideak	- Prestaketa fasea: 2019 - Obratzea: 2020	- Jakintsua - Eragilea - Kontsumitzailea - Neofitoa - Ihardukitzailea	- Partaideak - Bisitari kopurua - Media/prentsa aipamenak - Erakusketaren fama
⑤ Wikipediako edukien aberastean parte hartzea	Euskal kulturari buruzko edukien aberastean parte hartzea (euskaraz eta frantsesez), www.eke.eus eta www.mintzoak.eus webguneetako baliabideetan oinarriturik	EKE Partaidea: Euskal wikilariak	2018-2020	- Kontsumitzailea - Neofitoa - Ihardukitzailea	- Ekarpenen kopurua - Estekak / Erreferentziak

4. ARDATZA: AKTUALITATE ARTISTIKOA ETA KULTURALA BILDU ETA AGERIAN EMAN

HELBURU OROKORRAK:

- > EUSKAL KULTURAREN IPARRALDEKO AGENDA BILDU ETA HEDATU
- > LURRALDEKO SORTZAILEEN EKIMENAK ETA OBRAK AGERIAN EMAN
- > KULTURA ERAGILEEKILAKO HARREMANA ERRAZTU
- > EKE-REN ETA EKE-KO PARTAIDEEN EKINTZEN BERRI EMAN

Ekintza nagusiak	Deskribapen laburra	Eramailea	Epeak	Xedeko soslaiak	Ebaluaketa (indikadoreak)
① eke.eus webguneko agendaren garapena	▪ Edukien aberastea ▪ Asteroko newsletteraren hobetzea (pertsonalizazioa) ▪ Mugikorretako aplikazio baten sortzea	EKE	▪ Agendaren berrantolaketa 2018an ▪ Mugikorretako aplikazio baten sortzea 2019an	▪ Jakintsua ▪ Eragilea ▪ Kontsumitzailea	▪ Erreferentziamendu naturala ▪ Bisita kopurua / Orri ikusiak ▪ Agendan sartzeko eskaeren kopurua ▪ Aplikazioaren ezarpen kopurua ▪ Irekitze-tasa (emailing-a)
② Kultura eragileen erreperitorioaren hobetzea (intranet - internet)	▪ Sareko erreperitorioaren berrantolaketa ▪ Eguneratze sakona ▪ Kontaktuen barne-kudeaketa sistemaren hobetzea (intranet - internet)	EKE	▪ Eguneratzea: 2018 ▪ Kontaktuen kudeaketa sistemaren berritzea: 2019	▪ Eragilea ▪ Kontsumitzailea	▪ Erreferentziamendu naturala ▪ Bisita kopurua / Orri ikusiak ▪ Erreperitorioan sartzeko eskaeren kopurua
③ Sorkuntza eta kultura ekoizpen berrien promozioa	▪ Sorkuntza eta berrikuntzen inguruko albiste hari elebidun baten baten sortzea - eke.eus webgunean ▪ Berrien hedapena EKE-ko newsletteretan eta sare sozialetan	EKE	▪ Aktualitate haria 2018. urterako prest ▪ Eguneraketak: 2018-2020	▪ Eragilea ▪ Kontsumitzailea	▪ Erreferentziamendu naturala ▪ Bisita kopurua / Orri ikusiak ▪ Parte hartzea (sare sozialak)

Ekintza nagusiak	Deskribapen laburra	Eramailea	Epeak	Xedeko soslaiak	Ebaluaketa (indikadoreak)
④ Sortzaileen ikuspuntuaren agerian ematea (elkarrikereta medianiztunak)	Multimedia elkarrikeretak (testuak, argazkiak, bideoak) euskal kultura eragileekin eginak, zeharkako problematika edota gai tematiko jakin batzuren inguruan eginak	EKE Ko-ekoizpenak azter daitezke	2018 - 2020 epealdian, 6 erreportaia urtean	- Eragilea - Kontsumitzailea	- Erreferentziatutako naturala - Bisitak / Orri ikusiak - Parte hartzea (sare sozialak)
⑤ EKE-ren eta bere partaideen berrien zabalpena (Bloga eta newsletter-ak)	- EKE-ko aktualitateen albiste hari elebiduna - Hilabeteroko newsletter-a, partaideen berriak ere zabaltzen dituen	EKE	2018tik goiti	Eragilea	- Erreferentziatutako naturalak - Bisitak / Orri ikusiak - Irekitze-tasa (emailing-a)
⑥ Euskal kulturaren aktualitatearen inguruko komunitate-animazioa sare sozialetan	Komunitate-animazioa (Community management) Facebook eta Twitter sareetan	EKE	2018-2020 epealdian	- Kontsumitzailea - Eragilea	Parte hartzea (partikatzak, komentarioak, galderak...)

ZEHARKAKO ARDATZA: JAKINARAZI

HELBURU OROKORRA:

> EKE-K JENDEEN ESKURA EMATEN DITUEN GAILU GUZIEI BURUZKO KOMUNIKAZIOA SEGURTATU

Ekintza nagusiak	Deskribapen laburra	Eramailea	Epeak	Xedeko soslaiak	Ebaluaketa (indikadoreak)
① Komunikazio plan baten sortzea eta obratzea	▪ Komunikazio xedeko publikoen, mezuen, helburuen, euskarrien eta igorleen zehaztea ▪ Komunikazio ekintzen planifikazioa eta buxetean ezartzea ▪ Tresna numerikoen erredakzio politika eta hizkuntza politika azaltzen dituen dokumentu baten idaztea ▪ EKE-ko community manageraren lana zedarrituko duen dokumentuaren idaztea ▪ Ebaluaketak eta segipena ▪ Big data-ren erabilpena erabiltzaileei eskaintzen zaien zerbitzuaren hobetzeko gisan (e-posta pertsonalizatuak..)	EKE	▪ Komunikazio planaren idazketa: 2018 ▪ Obratzea: 2018-2020	▪ Jakintsua ▪ Eragilea ▪ Kontsumitzailea ▪ Neofitoa ▪ Ihardukitzailea	▪ Zehaztekoa planaren baitan

EKINTZA NAGUSIEN EGUTEGIA - AURREIKUSPENAK

